

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

LURRALDE OREKAREN ETA LURRALDE ANTOLAMENDUAREN SAILA

641/2024 Foru Agindua, abenduaren 11koa. Marta Piqueras Gómezek sustatutako proiektu honen interes publikoa adieraztea: familia bakarreko etxe bateko autokontsumorako instalazio fotovoltaikoa jartzea Kripango udalerriko lurzoru urbanizaezinean, 1 poligonoko 129 lurzatian

Marta Piqueras Gómezek obra lizentziarako baimen eskaera aurkeztu du Kripango Udalean, eskatzailearen jabetzakoa den 1 poligonoko 129 lurzatian instalazio fotovoltaiakoko proiektu bat gauzatzeko, familia bakarreko etxebizitzaren autokontsumo energetikorako, zeina baitago Kripango Zaga de San Juan kaleko 22 zenbakiko 1 poligonoko 857 zenbakidun hiri lurzatian.

Udalak espedientea bidali du, eta eskatu du izapidetu dadila proiektuaren interes publikoaren adierazpena, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 euskal Legeak 28.5.a) artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Proiektua deskribatzen duen memoria erantsi da, non jasotzen baita 7,2 kWn-ko potentzia izenduna duen instalazio bat dela, lurrian kokatuta dauden 460 Wp-ko 18 panel dituen (8.280 Wp zenbatuz), bai eta 3,6 kWn-ko baterietarako 2 inbertsore eta biltegitratzeko 5,4 kWh-ko bateria sistema ere. Instalazio mota sarera konektatzen da -2. motako autokontsumo modalitatea-, etxebizitzarako metaketarekin (banakakoa soberakinekin eta konpentsazio sinplifikatua).

Udal arkitektoak emandako txostenean adierazten da 1 poligonoko 129 lurzatia lurzoru urbanizaezin sailkatuta dagoela eta J.25 zonakoa dela (Zaindutako zonak: Nekazaritza eta abeltzaintza interesekoak). Hiri antolamendurako plan orokorraren 1.6.1.2 artikulua arabera, baimena ematen da interes publikoko instalazio gisa erabiltzeko, baldin eta, bere izaera eta ezaugarrietatik, ezinbestean kokatu behar bada duen nekazaritza eta abeltzaintza interesetatik babestuta dauden eremuetan.

Aurrekari horiei oinarri juridiko hauek aplikatu behar zaizkie:

Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Sailak eskumena du aztergai den espedientea ebazteko, bat etorri Arabako Foru Aldundiaren sailen egitura 2023-2027 legegintzaldirako zehazten duen Diputatu Nagusiaren ekainaren 30eko 152/2023 Foru Dekretuak eta Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onesten duen Foru Gobernu Kontseiluaren urtarrilaren 30eko 1/2024 Foru Dekretuak xedatutakoarekin.

Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen Testu Bategina onesten duen urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuak 13.1. artikuluan xedatutakoaren arabera, lurralde eta hirigintza antolamenduak urbanizazioaren bidez eraldatetik babestu duen eta landa egoeran dagoen lurzorian, Salbuespen gisa eta lurralde- eta hirigintza-antolamenduaren legerian aurreikusitako prozedura erabiliz eta baldintzak betez, zilegi izango da berariazko jarduera eta erabileraren batzuk legitimatzea, baldin eta interes publikoa edo soziala badute, landa-antolamenduari eta -garapeneri ekarpenak egiten badizkiote edo landa-ingurunean kokatu beharrekoak badira.

Bat etorri 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan ezarritakoarekin, Lurzoru urbanizaezinean honako hauek daude baimenduta: Ondoren zehazten diren zuzkidurak, ekipamenduak eta jarduerak ezartzea beste helbururik ez duten jarduketak: alde batetik, arlo jakin bateko legeriak -aplikatzekoa denak- edo lurraldearen plangintzak interes publikokotzat jo dituenak, eta bestetik, kasu jakinetan, dagokion foru-aldundiak interes publikokotzat jo dituenak; bigarren hiri, 20 egunetz jendaurrean edukitzeko tramitea bete ondoren, ebazpen baten bidez egingo du.

Urriaren 22ko 551/2024 Foru Aginduaren bidez, xedatu zen espedienteari hasierako onepena ematea eta jendaurrean jartzeko 20 eguneko epea irekitzea, ALHAOn argitaratzen zenetik aurrera. Argitalpena 124. zenbakian egin zen, 2024ko urriaren 30ean. Horretarako emandako epearen barruan ez da jaso inolako alegaziorik.

Proiektuaren interes publikoari dagokionez, Sektore Elektrikoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legeak honako hau ezartzen du 2.2 artikuluan: Energia elektrikoaren hornidura interes ekonomiko orokorreko zerbitzua da. Instalazioaren ezaugarri zehatzei dagokienez, energia berriztagarrien eta energia trantsizioaren araudia aplikatu behar da.

Jasangarritasun Energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legeak energia hornikuntzak eta haren erabilerak pertsonen bizitzarako duten berezko izaera jasotzen du, eta energia berriztagarriak azpimarratzen ditu. Legearen helburuen artean daude energia kontsumoa murriztea, energia jasangarritasuna bultzatu eta sustatzea eta ingurumena babestea energia berriztagarriko instalazioak ezarrita. Legearen 4. artikulua Iturri berriztagarrietatik lortutako energiaren definizioa jasotzen du, eta iturri ez-fosiletatik eskuratutako energia gisa definitzen; halaber, berariaz aipatzen ditu energia eolikoa, hidraulikoa, geotermikoa, eguzki energia eta beste batzuk. Lege bereko 5. artikulua lege horren helburuak ezartzen ditu, eta b) apartatua honako hau jasotzen du: Energia berriztagarriak sustatzea eta ezartzea, erregai fosilekiko mendekotasuna gutxitzeko.

Uztailaren 30eko 128/2019 Dekretuaren bidez onetsi ziren Lurralde Antolamendurako Gidalerroek (aurrerantzean, LAG) ezartzen dute energia berriztagarriak geroz eta gehiago ezarri behar direla gure lurraldea eraikitzean. Memorian, baliabideen kudeaketa jasangarriari buruzko 8. kapituluak honako hau zehazten du: Energia-eraginkortasuna eta energia berriztagarriak 2030erako Euskadiko Energia Estrategiaren (3E-2030) bi ardatz nagusiak dira, eta ezinbesteko betekizunak dira lurralde-iraunkortasuna, lehiakortasuna eta klima-aldaketaren aurkako borroka bermatzeko. Lurralde-estrategiaren energiaren alorrean beste zenbait erronkari ere heldu behar zaie, hala nola energia-eraginkortasunaren eta -efikaziaren igoera nabarmenari; deskarbonizazioari, energia berriztagarrien iturrien erabilera orokortuz; eta energia-autosufizientziantz aurrera egiteari (...).

Hortaz, energia-eraginkortasuna eta energia berriztagarriak Euskadiko Energia Estrategiaren bi ardatz nagusiak dira, eta ezinbesteko betekizunak dira lurralde-iraunkortasuna, lehiakortasuna eta klima-aldaketaren aurkako borroka bermatzeko (...).

Estatuan, Klima Aldaketaren eta Trantsizio Energetikoaren maiatzaren 20ko 7/2021 Legea lotuta dago arlo horretako Europar Batasunaren (EB) helburuekin eta Itun Berdearen hazkunde estrategiarekin. Hala, erabaki hau nabarmentzen du: legeak ekintza politikoaren erdigunean kokatzen ditu klima-aldaketaren aurkako borroka eta trantsizio energetikoa, ekonomiaren eta gizartearen funtsezko sektore gisa etorkizuna eraikitzeko eta aukera sozioekonomiko berriak sortzeko. (...) legeak bermatu behar du Espainian berotegi-efektuko gasen isurien neutraltasuna eta sistema energetiko efiziente bat lortzen dela 2050. urtea baino lehen (...).

Zehazki, 3. artikuluan, Gutxieneko helburu nazional hauek ezartzen dira 2030erako, nazioartean onartutako konpromisoak betetzeko, autonomia-erkidegoen eskumenak hargatik eragotzi gabe:

2. 2050. urtea baino lehen, eta, edonola ere, ahalik eta eperik laburrenean, Espainiak neutraltasun klimatikoa lortu beharko du (...) Eta sistema elektrikoak jatorri berriztagarriko sortze-iturriak baino ez ditu izango oinarri. (...).

Azkenik, Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE), Landa Ingurunearen Garapenaren ekainaren 30eko 7/2022 Legeak 6. artikuluan jasotzen ditu landa inguruneko politika instituzionalen helburu sektorialak. E) apartatua landaguneetako eta landa entitateetako oinarriko azpiegituren arloko helburuak jaso dira, eta hauek aipatzen dira, besteak beste: Energia berriztagarri eta jasangarriari lotutako azpiegituren garapena indartzea, (...) eta iturri berriztagarri eta jasangarrietatik lortutako energiaren autosorkuntza eta autokontsumoa erraztea, bai landa-guneetan, bai nekazaritza eta abeltzaintzako ustiatzietan.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa.- Marta Piqueras Gómezek sustatutako proiektu honen interes publikoa adieraztea: familia bakarreko etxe bateko autokontsumorako instalazio fotovoltaikoa jartzea Kripango udalerriko lurzoru urbanizaezinean, 1 poligonoko 129 lurzatian, bat etorritz Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan xedatutakoarekin.

Bigarrena.- Adierazpen honek ez du kentzen proiektua gauzatzeko udalaren lizentzia lortzeko beharra, eta ez du aurretik ezartzen udalak eman behar duen ebazpenaren edukia.

Hirugarrena.- Administrazio bidea amaitzen duen ebazpen honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da EAEko Auzitegi Nagusiko jurisdikzio horren salan, bi hilabeteko epean, edo, nahi izanez gero, berraztertzeko errekurtsua jarri ahal izango zaio egintza eman duen organoari berari, hilabeteko epean, bat etorritz Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. eta 124. artikuluetan xedatutakoarekin. Interesdunek egoki deritzoten beste edozein errekurtsu ere aurkez dezakete.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko abenduaren 17a

Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko diputatua

LAURA PÉREZ BORINAGA